

## 6-BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure bezeroekin harremana edukiko dugu. Salementaren unean, Lagunduko diegu haien jabetza aurkitzen, beraien gustuetan oinarrituta pozik senti daitezen eta aplikazioa sarriago erabil dezaten. . Salmenta ondoren, Aplikazioa baloratuko dute. Gustatzen bazaie, seguraski jarraituko dute erabiltzen eta 4 edo 5 izar emango diete. Gainera, gustatzen ez bazaie lagungarria izango da jakitea zer nolako gauzak hobetu behar ditugun balorazioak kontuan hartuta. Ikusten badugu askotan harpidetzen direla, seguraski promozioak emango diegu, fidagarriak izan direlako gure enpresaren hazkunderentzat.

Gure bezeroekiko harremana automatizatutako zerbitzua izango da. Aplikazioak berak bezeroaren interesekoak izan daitezkeen jabetzak proposatuko ditu, eta soilik norengana joan aukeratu beharko du.

Bezero berriak lortzeko, publizitatea egingo dugu beste aplikazioen bidez eta Esan gure lagunei aplikazioa instalatzeko, eta gero egin dezatela gauza bera lagunekin.

Azkenik, gure bezeroak mantentzeko, ahalik eta zerbitzu hoberena eman eta mantenimendu paregabea izatea, gainera, aplikazioa baloratuko ahal izango dute, pozik geratu diren heinean.